BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4420

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 7koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. Honen bidez unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak ematen dira.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko maiatzaren 3ko Aginduak egindako deialdian ezarritakoari jarraituz, eta izapidetu diren espedienteak aztertu ondoren,

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Arlo edo lurralde eremuak kontuan hartuz ebazpen honen I. eranskinean zehazten diren laguntzak ematea ikasleen guraso elkarteen federazio eta konfederazioei, 2011 urtean egingo diren ekintzak finantzatzeko.

2. artikulua.– Deialdiaren 2.d artikuluan aipatzen diren gaiak kontuan hartuz ebazpen honen II. eranskinean zehazten diren laguntzak ematea, ikasleen guraso elkarteen federazio eta konfederazioei, aurkeztutako proiektuak finantzatzeko.

3. artikulua.– Ebazpen honen III. eranskinean aipatzen diren proiektuei ezezkoa ematea, eranskin horretan bertan adierazitako arrazoiak direla bide.

4. artikulua.– Ordainketa aldi bakar batean egingo da, diru-laguntza onartu eta gastuak justifikatu eta gero. Aipatutako gastuak 15 egun naturalean justifikatu beharko dira ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, eta emandako diru-laguntza adinakoak edo handiagoak izan beharko dute. Halaber, epe berean hain zuzen ere jakinarazpenaren osteko hamabost eguneko epean ez bada berariaz eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartuta dagoela ulertuko da.

5. artikulua.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Hezkuntzako sailburuordearen aurrean. Horretarako epea hilabetekoa izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 7a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
CÁNDIDO HERNÁNDEZ GARDUÑO.

I. ERANSKINA

KONFEDERAZIOAK

Udalerria	Erakundearen izena	Guztira
Bilbao	EHIGE	83.531,07 euro
Bilbao	UFEPA: Confederac. de Euskadi	24.000,00 euro

LURRALDE HISTORIKOETAKO FEDERAZIOAK

Udalerria	Erakundearen izena	Guztira
Vitoria-Gasteiz	Denon Eskola	66.928,28 euro
Donostia-San Sebastián	Baikara	88.566,92 euro
Bilbao	FAPV-BIGE	110.504,80 euro

BESTE FEDERAZIOAK

Udalerria	Erakundearen izena	Guztira
Vitoria-Gasteiz	FAPACNE	16.060,92 euro
Abanto Zierbena	Serantespean	1.908,51 euro
Bilbao	Federac Católica de Bizkaia	48.508,47 euro
Udalerria	Bizkaiko Ik. Gur. Elk. Federaz.	19.199,65 euro
Bilbao	Ikasge	9.482,73 euro
Getxo	Elkargarri	3.111,45 euro
Santurtzi	Coordinadora Gidari	4.596,05 euro
Loiu	FAPAE	7.758,38 euro
Donostia-San Sebastián	FEGUIAPA	25.171,24 euro
Donostia-San Sebastián	Gipuzkoako Ik. Gur. Elk. Feder	22.162,86 euro
Ikaztegieta	Federación Eskola Txikiak	8.039,74 euro

II. ERANSKINA

Erakundea	Proeiktuaren izena	Kopurua
Denon Eskola	Oficina de información	6.337,00 euro
FAPACNE	Formación y motivación en familia	4.752,00 euro
Baikara	Programa familia y escuela	7.129,00 euro
FEGUIAPA	Creciendo en inglés	3.960,00 euro
BIGE	Fomento de la convivencia	7.525,00 euro
EHIGE	Jornadas sobre buenas prácticas	5.545,00 euro
UFEPA	Jornada sobre convivencia	4.752,00 euro

III. ERANSKINA

PROIEKTUEI EZ EMANDAKO LAGUNTZAK

FAPAE - «Familias Solidarias» - gutxienezko puntuazioa ez lortzeagatik.